



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailak 28

Vitoria-Gasteiz, 28 de febrero de 2017

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK 28 LEGE-PROIEKTU ONETSIKO DITU ETA BIDALIKO DIZKIO GANBERARI XI. LEGEGINTZALDIAN

Gobernu Kontseiluak “*XI. Legegintzaldiko Legegintzaldi Programa*” onetsi du; lan-dokumentu horrek Eusko Jaurlaritzaren legegintza-ekintza gidatuko du datozen lau urteotan.

Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari bidaliko dio, legebiltzar-taldeek aztertu eta eztabaidatu dezaten. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren web-atarian argitaratuko du (www.euskadi.eus), herritarrek 28 lege-proiektu horien berri izan dezaten eta horien segimendua egin eta horietan parte har dezaten.

Lan-dokumentu hori onetsi eta bidaltzean, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldiaren lau urteotarako dokumentu eta plan nagusiak prestatzeko eta Ganberari bidaltzeko konpromisoa beteko du.

- ✓ **Plan Estrategikoen Programa:** Gobernu Kontseiluak urtarrilaren 17an, asteartean, onetsi zuen.
- ✓ **Gobernu Programa 2020:** Gobernu Kontseiluak otsailaren 21ean, asteartean, onetsi zuen.
- ✓ **Legegintza Programa:** Gobernu Kontseiluak otsailaren 28an, asteartean, onetsi du.

LEGE PROIEKTUAK

LEGE PROIEKTUAK	SAILA
1. Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Lege Proiektua	Lehendakaritza
2. Euskal Autonomia Erkidegoaren Kultu-aretoen Lege Proiektua	
3. Euskal Enplegu Publikoari buruzko Lege Proiektua.	Gobernantza publikoa eta Autogobernua
4. Gardentasuna, Herritarren parte hartze eta Gobernu Onari buruzko Lege Proiektua.	
5. Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari Buruzko Lege Proiektua.	
6. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legea aldatzen duen Lege Proiektua.	
7. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legea aldatzen duen Lege Proiektua	

8. Administrazio publikoen iraunkortasun energetikoari buruzko Lege Proiektua	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak
9. Mugikortasun jasangarriari buruzko Lege Proiektua.	
10. Apirilaren 8ko Landa Garapenerako 10/1998 Legea aldatzeko Lege Proiektua	
11. Euskadiko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege Proiektua	
12. Euskal Enplegu Sistemari buruzko Lege Proiektua	Enplegua eta Gizarte politikak
13. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legea aldatzeko Lege Proiektua	
14. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 3/2005 Legea aldatzeko Lege Proiektua	
15. Ingurumenaren, Klima aldaketaren eta Natura kontserbatzearen Lege Proiektu orokorra	Ingurumena, Lurralde plangintza eta Etxebizitza
16. Ekarpenen Lege Proiektua 2017-2021	Ogasuna eta Ekonomia
17. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki Kutxei eta Banku-fundazioei buruzko Lege Proiektua	
18. Laguntzen Araubidea arautzen duen Lege Proiektua	
19. 2018-2021 Euskal Estatistika Planaren Lege Proiektua.	
20. Lanbide Heziketaren Lege Proiektua	Hezkuntza
21. Euskal Hezkuntza Lege Proiektua	
22. Euskal Kultura ondareari buruzko Lege Proiektua.	Kultura eta Hizkuntza politika
23. Euskadiko Kirolari buruzko 14/98 Legea eguneratzeko Lege Proiektua.	
24. Dopinaren aurkako Legea aldatzeko Lege Proiektua.	
25. Euskadiko Dokumentu kudeaketa integralaren Lege Proiektua.	
26. Euskadin Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Lege Proiektua.	
27. Euskadiko Poliziari buruzko Legea aldatzeko Lege Proiektua.	Segurtasuna
28. Euskadiko kooperatiben Lege Proiektua.	Lana eta justizia

LEGE PROIEKTUAK

LEHENDAKARITZA

1. Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Lege Proiektua

Helburua: Giza eskubideen nazioarteko eta Europako estandarretara egokitu, hala nola Istanbulko Hitzarmenera, haurren eta nerabeen babeserako lege berrietara (2015) eta Biktimen Estatutuari buruzko Legea; hori guztia, emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa eta hari eman beharreko erantzuna indartzeko eta osatzeko.

Giza eskubideen nazioarteko arategiak eta Europako Kontseiluaren Istanbulko Hitzarmenak botere publikoei eskatzen die emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko legeak egiteko, genero arrazoiengatik diskriminazioa eta emakumeen kontrako indarkeria erlazionatuta daudela berresten baitute. Hartara, diote genero-ikuspegia dela erantzuna antolatzeke oinarri.

2. Euskal Autonomia Erkidegoaren Kultu-aretoen Lege Proiektua

Helburua: Erlijio-askatasunaren oinarrizko eskubidearen erabilera bermatzea euskal gizartearen baitan diharduten elizei, konfesioei eta erlijio-elkarteei, eta horretarako kultu-aretoak eta bestelako erlijio-guneak irekitzea eta funtzionamenduan jartzea berariaz arautzea, inolaz ere onartu gabe konfesioen eta erlijio-elkarteen artean bereizkeriarik egitea.

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA

3. Euskal Enplegu Publikoari buruzko Lege Proiektua.

Helburua:

- Euskadiko enplegu publikoaren erregimen juridikoa antolatu eta definitzea, oinarrizko legeetan aurreikusitako konfigurazio tarteen barruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuak eta Konstituzioak aitortzen dituzten eskumenekin ados.
- Enplegu publikoa kudeatzeko tresnak garatzea, Euskal Administrazio Publikoetan aplikagarriak.

4. Gardentasuna, Herritarren parte hartze eta Gobernu Onari buruzko Lege Proiektua.

Helburua: Euskal sektore publikoaren funtzionamendua gidatu behar duten oinarri orokorrak ezartzea, “administrazio on bat izateko eskubidearekin” lotuta, Oinarrizko Eskubideei buruzko Europar Batasunaren Kartan agertzen den modura, eta honako obligazio hauetan gauzatzen direnak: politika publikoak planifikatu eta ebaluatzea; administrazio jardueraren gardentasun eta publikitatea zabaltzea eta indartzea; euskal sektore publikoa osatzen dituen erakunde eta entitateei dagokienez, bereziki, Autonomia Erkidegoaren sektore publikoan, zuzenean edo zeharka, interes publikokoak diren erabakietarako eta diseinurako, herritarren parte hartzea txertatzea.

5. Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari Buruzko Lege Proiektua.

Helburua: Politika publikoak aurrera eramateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek, erakunde autonomoek, zuzenbide publikoko edo pribatuko erakunde publikoek, sozietate publikoek eta erkidego, foru eta tokiko gobernu maila desberdinek erabiltzen dituzten gainerako erakunde instrumentalek osatzen duten Euskal Sektore Publikoa arautzea, modu antolatu eta kohesionatuan, indarreko legearen mende, eta interes orokorra eta guztion ongia helburu izanik.

6. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legea aldatzen duen Lege Proiektua.

Helburua: Gardentasun, gobernantza onaren printzipio, politika publikoen ebaluazio, edo herritarren parte hartzearen ikuspegitik, inpaktua ebaluatzeko eta xedapen orokorrak egiteko prozeduretan, herritarrek eta Europako instantziek (europar gobernantzaren kontzeptuen eta “*smart regulation*” izenekoaren eskutik) erreklamatzeko dituzten aurrera pausuak direla-eta, indarrean dagoen arauak lantzeko prozedura arautzen duen testua egokitu beharra dago.

7. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legea aldatzen duen Lege Proiektua

Helburua: Euskal Administrazio Publikoen zehapen prozedura Estatuko oinarrizko legearen aldaketa berrienetara egokitzea (batez ere 40/2015 Legea, gure 2/1998 Legeak arautzen duen zehapen prozedurari dagokionez, baina baita 39/2015 Legea ere, beste administrazio prozedura berezi batzuei dagokienez), ondoren agertutako inkonstituzionaltasuna eta ez aplikatzea ekiditeko, eta euskal herritarren segurtasun juridikoa bermatzeko.

EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK

8. Administrazio publikoen iraunkortasun energetikoari buruzko Lege Proiektua

Helburua: Proiektuaren helburua da iraunkortasun energetikoari buruzko araudiaren oinarriak ezartzea EAEko administrazio publikoetan, energiaren politikak duen orientazio orokorra betez; administrazio publikoek bete behar dituzten baldintzak eta betebeharrak ezarri behar dira, honako neurri hauek sustatzera bideratuta batez ere: energia aurrezte eta hura eraginkorragoa izatea, eta energia berriztagarriak bultzatzea eta ezartzea.

9. Mugikortasun jasangarriari buruzko Lege Proiektua.

Helburua: Legez koordinatzea eta agintzea mugikortasunari buruzko politika, zeina modu desberdinek osatzen duten sistema den, leku-aldatze eta irisgarritasun beharrezanean erantzuteko.

10. Apirilaren 8ko Landa Garapenerako 10/1998 Legea aldatzeko Lege Proiektua

Helburua: Landa-hiria interakzio berrira egokitzea, duela 18 urte onartuta gaur egun indarrean dagoen legean datozen parametroak ez diren beste parametro batzuetan oinarrituta, eta gure landa-inguruaren garapena baldintzatuko duten joera berriei aurre egitea, batasuneko politiken eboluzioa nahiz Europako politika erregionala kontuan hartuta.

Euskadiko ekonomiaren garapena, lurraldeen arteko konexioa, premia energetikoak, berrikuntza soziala, kontsumitzeko joera berriak eta garapen metropolitanoari (hiria-eskualdea) lotuta datorren lurralde-garapenerako eredia izango dira kontuan hartuko diren parametro berriak.

11. Euskadiko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege Proiektua

Helburua: Itsas garraioak eta oro har garraio horren abiapuntu izaten diren portuek elkarrekin duten lotura aintzat hartuta, komenigarritzat jotzen da lege-testu berean jasotzea gai horiei dagozkien arau guztiak, horrela gure itsasertzeko portu eta instalazioek sistema bat osa dezaten, itsas garraioaren premiak aseko dituen merkataritzaren, arrantzaren zein aisiaren arloetan.

ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK

12. Euskal Enplegu Sistemari buruzko Lege Proiektua

Helburua: Euskal Enplegu Sistema arautzea eta antolatzea, hau da, enplegu-politika aktiboak planifikatu eta garatzeko egitura eta tresnak arautzea.

13. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legea aldatzeko Lege Proiektua

Helburua: Araudia Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Batzorde Teknikoak egindako proposamenetara egokitzea, gizarte-babeserako euskal sistemaren finantziazioa sendotzeko eta jasangarritasuna bermatzeko. Hortaz, zenbait aldaketa egingo dira, betiere diru-sarrerak bermatzeko errentari dagozkion alderdi guztiak optimizatzeko eta gizarte-kohesioko tresna gisa sendotzeko helburuarekin

14. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 3/2005 Legea aldatzeko Lege Proiektua

Helburua: Legea estatuan alor horretan sortu diren honako arau berri hauek egokitzea: 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa, eta 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa.

INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA

15. Ingurumenaren, Klima aldaketaren eta Natura kontserbatzearen Lege Proiektu orokorra

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-estrategia jasangarriaren ekimen guztiak sustatuko dituen lege-esparru bilakatzea. Arlo horretan dagoen legeria integratu eta eguneratzea, emisioak gutxitzeko helburuak finkatzea eta klima-aldaketaren kontrako borroka sustatzeko arau-neurriak sartzea.

OGASUNA ETA EKONOMIA

16. Ekarpenen Lege Proiektua 2017-2021

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunien eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko finantza-harremanen erreferentzia-esparrua eguneratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 41.2 artikuluko e) idatz-zatiko baldintzak betez.

17. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki Kutxei eta Banku-fundazioei buruzko Lege Proiektua

Helburua:

- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki kutxei buruzko egungo araudia arlo honetan Estatuan dagoen oinarrizko arautegira egokitzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko banku fundazioen araubide juridikoa erregulatzea, Estatuan arlo honetan dagoen oinarrizko araudiaren arabera.

18. Laguntzen Araubidea arautzen duen Lege Proiektua

Helburua:

- Laguntzen eta dirulaguntzen araubide orokorra Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gai moduan berariaz erregulatzea.
- Administrazioaren dirulaguntza-jarduera berrantolatzea, kontuan hartuta indarreko araudiaren aplikazioan orain arte pilatutako esperientzia.

19. 2018-2021 Euskal Estatistika Planaren Lege Proiektua.

Helburua:

- Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera antolatzea 2018-2021 laurtekoan.
- Plana legez onartzen da, eta Euskal Estatistika Erakundea/EUSTATEk, Jaurlaritzako sailek eta ekintza-mailako estatistika-organoek (foru aldundiek nahiz udalek) indarraldian egin beharko dituzten estatistika-eragiketak eta estatistika-jarduerak hartzen ditu barruan.

HEZKUNTZA

20. Lanbide Heziketaren Lege Proiektua

Helburua: Kalifikazioen, Lanbide Heziketaren eta Orientazioaren Sistema Integratua antolatzea, enpresen eta pertsonen behar guztiak modu orokorrean eta malguan batera ditzan, lanbide-heziketako modalitate guztiak barne hartuz (bai hezkuntza-sistemakoa, bai enplegurako lanbide-heziketa), ikasteko eta lanbide-gaitasuna lortzeko era guztiak onartuz eta bultzatuz, eta bere neurri eta ekintza guztiak adin aktiboan dauden pertsona guztiei zuzenduz.

21. Euskal Hezkuntza Lege Proiektua

Helburua: Euskal Hezkuntza Legearen helburua Euskal Hezkuntza Sistema arautzea da, EAEn kalitate, ekitate eta eraginkortasun printzipioetan oinarritutako hezkuntza sistema bateratua eraikitzen lagunduko duen markoa ezarriz, gizarte-kohesioa eta herritar aktiboak sustatuko dituena, eta ikastetxe publiko zein itunpekoen identitatea eta izaera propioa errespetatuko dituena.

Gainera, Euskal hezkuntza sistemaren kalitatean aurrera egiten eta sakontzen lagunduko duen legea izan behar du, egungo edo etorkizuneko gizartearen eta testuinguruaren behar pertsonal, sozial, akademiko eta laborekin bat eginez, eta aldi beran Europako hezkuntza espazioan txertatuta.

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

22. Euskal Kultura Ondareari buruzko Lege Proiektua.

Helburua: Euskal kultura-ondasunari heltzea modu integral eta osatuago batean, jarduteko eremu hauek bereiziz: ondare higiezinak, higigarriak eta immaterialak. Guztira, hamahiru kategoria desberdintzen ditu: sei, kulturako ondare higiezinaren kasuan (monumentu-multzoa, eremu arkeologiko edo paleontologikoa, leku historikoa, kultura paisaia eta lorategi historikoa, eta kultur ibilbidea); bi, kulturako ondare higigarriari dagokienez (banakako ondare higigarria eta ondare higigarrien multzoa); eta bost, kulturako ondare immaterialen kasuan (kulturaren ahozko tradizioak eta adierazpideak, ikuskizunaren arteak, gizarte-ohiturak, errituak, jai-ekintzak, artisautzari lotutako jakintzak eta teknikak; elikatze moduak eta sukaldaritza sistemak).

23. Euskadiko Kirolari buruzko 14/98 Legea eguneratzeko Lege Proiektua.

Helburua: Autonomia Estatutuko 10.36 artikularen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak kirolaren arloko eskumen eskusiboa du. Eskumen hori gauzatzeko, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak.

2018 urtean, 20 urte bete dira legea onartu zenetik, eta, orduetik, asko aldatu da gure gizartean kirola egiteko ikuskera. Gogoeta sakona egiteko beharra ikusi da sektoreko agenteekin; alde batetik, legearen egungo alderdiei buruz, bai funtzionatu dituzten puntuen gainean bai garapena izan ez duten artikuluen gainean. Beste alde batetik, gogoeta egitea gizartean hurrengo 20 urteetan egin nahi da jarduera fisikoaz eta kirolaz, gure asmoa baita garaiekin bat datorren, eta egungo itxaropenak eta beharrak jasoko duen legea egitea.

24. Dopinaren aurkako Legea aldatzeko Lege Proiektua.

Helburua: Kiroleko Dopinaren Aurkako Legea aldatzeko lege-proiektuaren xedea da Dopinaren aurkako euskal legea egokitzea AMAren Dopinaren aurkako Mundu Kode berrira (Dopinaren aurkako Munduko Agentzia). AMA (WADA ingelesez) da dopinaren aurkako munduko borrokaren erreferentzia; hortaz, Eusko Jaurlaritzak funtsezkotzat jotzen du euskal legea haien irizpidetara egokituta egotea.

25. Euskadiko Dokumentu kudeaketa integralaren Lege Proiektua.

Helburua: Euskadiko dokumentu kudeaketa integralaren legearen helburu nagusia da honako hauek lortzeko oinarriak ezartzea: batetik, dokumentu publikoak digitalki eta analogikoki kudeatzeko sistema koherente eta koordinatu bat antolatzea, modu horretan bermatuz hala balio iraunkorra duten dokumentuen kontserbazioa, nola haietarako irispidea, betiere irispide hori erregulatzen duen araudi osatuago baten esparru orokorraren arabera; bestetik, antolatzea Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-sistema, gure erkidegoarentzat interesa duten dokumentazio publiko eta pribatua zaindu behar duena.

26. Euskadin Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Lege Proiektua.

Helburua: Autonomia Estatutuko 10.36 artikularen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak kirolaren arloko eskumen eskusiboa du. Eskumen hori gauzatzeko, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak. Lege horrek 62. artikuluan ezartzen zuen ezen agintari publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, titulu ofizialak eskatuko dituztela kirolarekin zuzenean lotutako zerbitzuak eskaintzeko, hots, irakaskuntza- zuzendaritza-, kudeaketa-, entrenamendu- eta animazio-zerbitzuak eta bestelakoak eskaintzeko.

Kirol arloko lanbideek gero eta intzidentzia handiagoa dutenez gizartean, beharrezkotzat jotzen da gaur egun ez dagoen araudia sortzea. Aipatu jarduera profesionalak kirolarien osasunean eta segurtasunean eragiten dute zuzenean, bereziki, prestakuntza egokirik gabeko pertsonak bete izan baitituzte aholkularitza eta tutoretza lanak. Hauek arautu nahi ditu

lege-proiektuak: kirol-arloko berezko lanbide batzuetan jarduteko oinarriko alderdiak, lanbide horietan jarduteko zer kualifikazio izan behar den zehaztea, eta lanbide bakoitzari dagokion eremu funtzional orokorra esleitzea.

Kirol-arloko lanbideetan sartzeko edo jarduteko, legearen ezaugarrietako bat izango da beharrezkoa izango dela goi-mailako hezkuntzako titulua ezezik, dagozkion lanbide-kualifikazioak ere egiaztatzea. Kualifikazio horiek, berriz, hainbat mailatako titulu akademikoen bidez egiaztatu ahal izango dira, baita beste titulu batzuen bidez ere, esaterako, profesionaltasun-ziurtagiriak.

Lege honek arautuko dituen lanbideek hezkuntzaren, aisiaren, lehiaren eta zuzendaritzaren eremua hartzen dute. Hortaz, lanbide hauez ari gara:

- Irakasleak
- Monitorea
- Entrenatzaileak
- Kiroleko zuzendariak

SEGURTASUNA

27. Euskadiko Poliziari buruzko Legea aldatzeko Lege Proiektua.

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruko 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, aldatzea, polizia-eredua sendotzeko, zerbitzuaren beharrak ondo bete daitezen prozedura azkarrak ezartzeko, funtzionarioen eskubideak bermatuta, eta poliziaren zerbitzua eraginkorra eta efikaza izan dadin behar diren mekanismoak jasotzeko

LANA ETA JUSTIZIA

28. Euskadiko kooperatiben Lege Proiektua.

Helburua: Testu bakar batean bateratzea eta integratzea eginiko aldaketak, enpresa egiteko bestelako aukera den sozietate mota horren eraginkortasunerako eta baliagarritasunerako gai nuklear erabakigarriak argitzeko, hala nola bazkideek zor sozialak direla-eta dituzten erantzukizunak.

Lehendakaritza

ONARTUTA EUSKADIREN ORDEZKARITZA AKITANIA/EUSKADI/NAFARROA EUROESKUALDEAREN BATZARREAN

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio gaur beren karguagatik Euskal Autonomia Erkidegoa Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea ordezkatzeko duten pertsonen izendapenari.

Gaurko bileran onartutakoaren arabera, Euskadiren ordezkariak osatuko dute Iñigo Urkullu lehendakariak; Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburu Arantxa Tapiak; Hezkuntza sailburu Cristina Uriarte Toledok; Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburu Alfredo Retortillok; Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi Maria Angeles Elorzak, eta Europako Gaietako zuzendari Mikel Antonek.

Lurralde-lankidetzako elkarte europar hau osatzen duten hiru lurraldeek Euroeskualdearen Estatutuak onartu eta berretsita, orain gobernu-organoak eratuko dira, haren jarduerari ekiteko. Zehazki, eta Batzarrari dagokionez, organo hau 18 pertsonak osatzen dute, modu paritarioan aukeratuek Akitania Limousin Poitou-Charentes eskualdeak; Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak. Lurralde bakoitzari 6 kide titular aukeratzea dagokio eta, hala badagokio, 6 ordezeko.

Hain zuzen ere, datorren astelehenean, martxoak 6, Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdearen Batzarrak bilera bat egingo du Bordelen, eta bertara joango dira Urkullu lehendakaria Euskadiko ordezkariaren buru, Akitania Berriko lehendakari Alain Rousset eta Nafarroako lehendakari Uxue Barkos.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 700.000 EURO ESLEITU DITU GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN LAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ematen dituen genero-indarkeriaren emakume biktimentzako laguntzen deialdia onetsi du.

Laguntza-mota hori baliabide ekonomiko nahikoa ez duten eta, adina dela eta, edo prestakuntzarik ez dutelako, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei bideratuta dago. Laguntza horien bidez, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek erasotzailearengandik independizatzeko eta beren egoera egonkortzeko gutxieneko baliabide batzuk eskuratzen dituzte. Artolazabal sailburuak proposatuta, 2017an 700.000 euro bideratuko dira horiek finantzatzera.

Zenbatekoa 2.556 eta 10.224 euro bitartekoa izango da, emakume bakoitzaren egoera pertsonalen eta familiarren arabera. Horietara jotzeko funtsezko eskakizunak honako hauek dira:

- a) Eskabidearen egunean, Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egotea, gutxienez sei hileko antzinatasunarekin.
- b) Hilean, indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 gainditzen duen errentarik ez izatea, bi aparteko pagaren zati proportzionala aparte.
- c) Zailtasun bereziak izatea enplegua lortzeko; hori Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako txostenaren bidez egiaztatuko da.
- d) Laguntza hori jaso ez izana, ez Euskal Autonomia Erkidegoan, ez estatuko beste edozein erkidegotan; laguntza hori 1/2004 Lege Organikoaren babesean ezarri da.
- e) Genero-indarkeriaren egoera aurreikusitako moduan egiaztatzea, urtebete baino gehiago igaro gabe, babes-neurriak indarrean sartu zirenetik laguntza honen eskabide-datara arte:
 - Genero-indarkeria eragiten duten gertakarien ondoriozko kondena-epaia, bertan biktimaren aldeko babes-neurriak adosten direla.
 - Biktimaren aldeko babes-agindua indarrean, eskabidearen indarreko datan.
 - Salbuespen gisa, egoera horren egiaztapen-titulua izango da Fiskaltzaren txostena, baldin eta adierazten badu salatzailea genero-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela, babes-agindua eman bitartean.
- f) Erasotzailearekin ez bizitzea (eta harremana amaitu izana berarekin).

Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako informazioa emateko eta telefono bidez arreta emateko zerbitzu espezializatua du. 900 840 111 da zenbakia; 51 hizkuntzatan eskaintzen da arreta; bertara familiartekoei eta hurbileko pertsonak ere jo dezakete, bai eta horiei arreta eskaintzen dieten profesionalak ere. Zerbitzu horrek, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak ez ezik, familia barruko indarkeria-generoaren, sexu-jazarpenaren eta/edo lan-eremuan sexuaren arrazoiagatik erasoaren, sexu-erasoen, derrigortutako prostituzioaren eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima direnak ere artatzen dira, besteak beste.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 4,34 MILIOI EURO BIDERATU DITU GIZARTEAN ESKU HARTZEKO EREMUAN HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZERA

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 4,34 milioi euroko partida bideratuko du gizartean esku hartzeko eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzera.

Laguntza-mota horiek abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan arautzen dira, eta pertsona, familia eta taldeen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa babestera eta sustatzera bideratutako jarduerak finantzatzen laguntzen dute.

Gizarte Zerbitzuez gainera, ekintza-mota horiek gizarte-inklusioaren eremuan, familiaren babesaren eta haur eta nerabeentzako arretaren eta babesaren eremuan kokatzen dira. Era berean, etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasunera, adinekoen, mendekotasun egoeran daudenen eta desgaitasunen bat dutenen arreta eta babesera eta askatasun eta aniztasun afektibo-sexualera bideratzen dira.

Diru-laguntzen lehenengo lerroak pertsona, familia, talde eta erkidegoekin gizartean esku hartzeko jarduerak aurreikusten ditu. Laguntza horiei bide emateko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, 2017an, 3,74 milioi euro bideratuko ditu.

Bigarren lerroa gizartean esku hartzeko ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeko jarduerak diruz laguntzera bideratuko da. Atal horren barruan, finantzaketa izan ahalko dute ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzearen garapena areagotzeko jarduerak: zehazki, erakundeak, sareak edo federazioak sortu eta hobetzeko ekintzak. Laguntzen kapitulu honek 599.000 euroko zuzkidura du.

Hezkuntza

712.000 EURO IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO

- **2016-2017 ikasturte honetan irakasleentzako 255 prestakuntza-ikastaro eskaintzen ditu Hezkuntza Sailak, Prest_Gara planaren baitan**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Sail horrekin elkarlanean ari nahi duten erakunde publiko eta pribatuek, irakasleen etengabeko prestakuntzarako proiektuak aurkeztera deitzen dituen Agindua, 2017-2018 ikasturterako Prest_Gara Planaren baitan. 712.000 euroko diru kopurua duen deialdi honek, ondorengo jardueretakoren bat egitera zuzendutako proiektuak diruz laguntzea du helburu:

-Atzerriko hizkuntzetako prestakuntza-jarduerak: 200.000 euro bideratzen dira 2017-2018ko ikasturtean zehar burutuko diren jardueretarako, eta 110.000 euro 2017ko udan egingo direnetarako.

- Unibertsitatez kanpoko hezkuntza etapetako **irakasleen gaitasun profesionalak garatzeko jarduerak** eta indarrean den eskola-curriculumari zein Hezkuntza Sailak ezarritako jarduera-eremuei lotutakoak (atzerriko hizkuntzetan prestatzekoak izan ezik): 132.000 euro erabiliko dira 2017ko uztailaren 3tik urriaren 31ra bitartean egingo diren jardueretarako, eta 200.000 euro 2017ko azaroaren 2tik 2018ko ekainaren 30era bitartekoetarako.

Era berean, deialdiak jasotzen du Sailak aurreko bi atal horietan aurreikusi ez arren, erakunde laguntzaileek proposatu dituzten beste zenbait prestakuntza-jarduera diruz laguntzeko aukera ere, baldin eta edukiarengatik, ikuspegiarengatik edo izaera berritzailearengatik irakasleen etengabeko prestakuntzarako interesa badute. 70.000 euro jasotzen dira hirugarren atal honetarako.

2016-2017 ikasturte honetan zehar, Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko irakasleentzat, izan ikastetxe publikoetakoak zein itunpeko ikastetxetakoak, 6.066 plaza eskaintzen ditu 255 ikastaro desberdinetan, guztiak ere aurrez azalduriko arloekin lotura dutenak. Ikastaro horietan 4.001 irakasle ari dira parte hartzen edo parte hartuko dute ikasturtea amaitu baino lehen. 2016-2017 ikasturteko Prest_Gara Planean 47 elkarte edo erakunde formatzaile ari dira lanean. Horiei guztiei Berritzegune Nagusia gehitu behar zaie (Hezkuntza Sailaren baitako zentroa), honek ere prestakuntza jarduerak eskaintzen baitihardu.

Azken xedea, ikaslea

Hezkuntza Sailak badu irakasleak prestatzeko plana. Plan horretan, alde batetik, prestakuntza-proposamenak egiten ditu, unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan-gaitasuna hobetzearren, eta bestetik, proposatzen du irakasleek eurek beren lanean sumatzen dituzten beharren eta egiten dituzten eskaeren

araberako prestakuntza etengabea. Irakasleek jarduera horien bidez eskuratutako jakintza eta trebetasunek ikasgelako eguneroko lanean izan behar dute isla, eta ikastetxean ere inpaktua izan, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetze aldera.

Horregatik, prestakuntza-prozesu ororek ikaslea izan behar du azken xede, prestakuntzak zentzua baitu hezkuntza-sistemaren ekitatearen eta bikaintasunaren onerako eragiten duen neurrian, eta hezkuntza-sistemaren erreferentzia ikaslea izanik, prestakuntzari eta berrikuntzari ikasleak ematen baitio zentzua hezkuntza-esparruan.

Deialdi honetan parte hartu nahi duten erakunde eta elkarteek hilabeteko epea izango dute Hezkuntza Sailari euren proiektuak aurkezteko, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Euskal Autonomia Erkidegoan irakasleak prestatzeko jarduerak, Prest_Gara planaren barruan, egiten dituzten edo egiteko prest dauden erakunde publiko edo pribatuak izan daitezke deialdi honen onuradun.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO APROBARÁ Y REMITIRÁ A LA CÁMARA 28 PROYECTOS DE LEY EN LA XI LEGISLATURA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el “*Programa Legislativo de la XI Legislatura*”; un documento de trabajo que guiará la acción legislativa del Gobierno Vasco durante los próximos cuatro años.

Este documento será enviado al Parlamento Vasco, para análisis y debate de los grupos parlamentarios. Además, se publicará en el portal web del Gobierno Vasco, www.euskadi.eus, para conocimiento, seguimiento y participación de la ciudadanía en la elaboración de los 28 proyectos de ley.

Con la aprobación y envío de este documento de trabajo, el Gobierno Vasco cumple con su compromiso de elaborar y remitir a la Cámara los principales documentos y planes de trabajo de cara a los cuatro años de la legislatura:

- ✓ **Programa de Planes Estratégicos:** aprobado por el Consejo de Gobierno el martes 17 de enero.
- ✓ **Programa de Gobierno 2020:** aprobado por el Consejo de Gobierno el martes 21 de febrero.
- ✓ **Programa Legislativo:** aprobado por Consejo de Gobierno hoy, martes 28 de febrero.

RELACIÓN DE PROYECTOS DE LEY

PROYECTOS DE LEY	DEPARTAMENTO
3. PL para la erradicación de la Violencia contra las Mujeres	Lehendakaritza
4. PL de Centros de Culto de la CAPV	
3. PL de Empleo público vasco.	Gobernanza Pública y Autogobierno
4. PL de Transparencia, participación ciudadana y Buen Gobierno.	
5. PL de Organización y Funcionamiento en el Sector público vasco.	
6. PL de modificación de la Ley del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.	
7. PL de modificación de la Ley 2/1998 de potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la CAPV	

8. PL de Sostenibilidad energética de las Administraciones Públicas	Desarrollo económico e Infraestructuras
9. PL de Movilidad Sostenible.	
10. PL de modificación de la Ley 10/1998, de 8 de Abril, de Desarrollo Rural	
11. PL de Puertos y Transporte marítimo del País Vasco.	
12. PL del Sistema vasco de Empleo	Empleo y Políticas Sociales
13. PL de modificación de la Ley sobre Garantía de Ingresos y para la Inclusión social	
14. PL de modificación de la Ley 3/2005 de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia	
15. PL General del Medio ambiente, Cambio climático y Conservación de la Naturaleza	Medio ambiente, Planificación territorial y Vivienda
16. PL de Aportaciones 2017-2021.	Hacienda y Economía
17. PL de Cajas de Ahorros y Fundaciones Bancarias de la CAE	
18. PL reguladora del régimen de subvenciones	
19. PL del Plan Vasco de Estadística 2018-2021.	
20. PL de Formación Profesional.	Educación
21. PL Vasca de Educación	
22. PL vasca de Patrimonio Cultural.	Cultura y Política lingüística
23. PL de actualización de la Ley 14/98 de Deporte del País Vasco.	
24. PL de modificación de la Ley contra el Dopaje en el Deporte.	
